

Alaves ♦ Partidu zaila izango da derbia Contrarentzat, Realak oso jokalaria onak dituela uste baitu

«Borroka handiko derbia»

Bizi duten egoera ona baliatu beharra dutela dio errumaniarrak

Asier Errasti / Gasteiz

IGANDEKO derbia «borroka handiko» partidua izango da, Cosmin Contra Alaveseko atzelari errumaniarrak atzo adierazi zuenez. «Borroka handia izango da, bi taldeak irabazteko grina handiz ariko baikara». Errumaniarrak oso argi du Alaves ez dagoela Realarekin zorretan, eta buru-belarri garaipenaren bila ariko direla aurreratu du, «klubak horretarako ordaintzen baitigu».

Hori bai, Realak ez dela aurkari erraza izango oso argi du Contrak; izan ere, hurrena zioen atzo errumaniarrak derbiaren inguruan: «Oso egoera onean gaude, eta hori baliatu beharra daukagu. Hori bai, Realak ere oso jokalaria onak ditu, eta baliteke guk baino hobeto jokatzeko eta irabaztea. Guk, irabazteko guztia emango dugu, eta, ondorioz, lehia handiko partidua izango dela uste dut».

Anoetan jokaturako partiduan Contra izan zen protagonistetako bat, bi txartel hori ikusi eta kanporatu egin baitzuten. Igandean berriz horrelakorik ez dela gertatuko espero du errumaniarrak; hori bai, Espainiako Ligako epaileak «bereziak» direla eta txartelak «oso erraz» ateratzen dituztela azpimarratu zuen Contrak.



Cosmin Contra, taldekideekin batera, Alavesen entrenamendu saio batean.

Magno jokatzeko moduan izango da

■ MAGNO MOCELIN brasildarra bihar Realaren aurka jokatzeko moduan izango da, oso ondo osatu baita osteguneko entrenamenduan eskuin orkatilari izandako tendinitis traumatikotik.

Hasiera batean, Magno atzo ez zela entrenatuko azaldu zuten Alaveseko medikuek, baina jokalaria brasildarraren errehabilitazioa onak ikusita, atzo taldekideekin batera aritzeko baimena eman

zioten. Ildo horretan, kontuan izan behar da ostiraletan errehabilitazio lan saio arina baino ez duela egiten Alavesek.

Gauzak horerela, Jose Manuel Esnal Mane-k gaurko saio-

an zer egiten duen ikusi beharko da orain, Magnok hasieratik jokatzeko duen ikusteko. Osteguneko saioan ikusi ahal izan zenez, Magno hasieratik jartzeko asmoz zuten Manek.

Canal Plusek Celta-Alaves partidua emango duela esan du, eta taldeak epaitegietara eraman du auzia

A. E. / Gasteiz

AUDIOVISUAL SPORT auzitara eramateko erabakia ezaugarazi zuen herenegun Alavesek, eta atzo bertan bete zuen agindua. Izan ere, Canal Plusek hurrengo jardunaldiko Celta-Alaves partidua eskainiko duela jakinarazi du, eta, ondorioz, Gasteizko taldeak telebista eskubideekin dituen arazoak gordin-gordin azaleratu da.

Alavesek Audiovisual Sportekin duen kontratuak jasotzen duenez, ordaindu beharreko telebista kate batek Alavesen edozein partidua eman nahi badu, kate horrek uko egin behar dio

Arabian partidua emateari. Hori dela eta, orain artean Canal Plusek ez du Alavesen partidurik eman, ez baititu Arabian partidua ez eskaintzeko behar diren baliabide teknikoak. Gainera, bai Audiovisual Sportek bai Canal Plusek, uko egin diote azken urte eta erdian Alavesekin bildu eta egoera konpontzen saiatzeari.

Orain, aldiz, gasteiztarrek sailkapeneko bigarrenak dira, haien inguruko interesa izugarri igo da, eta Canal Plusek Celta-Alaves partidua ematea erabaki du.

Alaves ez dago egoera hori onartzeko prest, diru kopuru

handi bati uko egin baitzion, partidua Arabian ez emateko klausula kontratuan sartzeagatik. Ildo horretan, Alaves Lehen Maila osoan telebista eskubideengatik diru gutxien jasotzen duen hiru taldeen artean dago.

Egoerak zein bide hartzen duen ikusi beharko da orain. Alavesek dagoeneko aurreratu du asteartean egingo den Futbol Liga Profesionaleko biltzarrean (LFP) gainontzeko taldeen sustengua eskatzeko duela. Egoera konpontzeko negoziazioak abiatzeko prest dagoela ere aurreratu du Alavesek, baina ez du «zapalkuntzarik» onartuko.

Ondorioz, hurrengo egunetan gertatzen denak garrantzi handia izango du, Alavesek argi baitu ez duela Celtaren aurka 19:30etan jokatu nahi —hori da Canal Plusek botatzen dituen partiduen ordua—. Jokatzekotan, notario baten presentzia eskatuko du Alavesek, egoeraren berri har dezan. Era berean, Alavesek jokatzeari uko egiteko azken aukera ere badago, baina zaila dirudi egoera horrenbeste makurtzea. Ildo horretan, garrantzitsua izango da astearteko bileran Ligako gainontzeko taldeek zer nolako jarrera hartzen duten ikustea.

hor zain

Italiako prentsa haserre taldeen kanporaketarekin

UEFA Kopako final zortzi-renetatik Italiako lau ordezkariak kanporatuak izan ostean —Parma, Juventus, Roma eta Udinese—, hango egunkariak suminduta agertu ziren atzo. Calcio Liga munduko txapelketarik onenen artean dago, eta aurtan ez da Italiako talderik izango UEFAko azken txanpan.

George Best, erietxean osatzen

George Best arriskutik kanpo dago, Londresko Cromwell Ospitalean. Jokalaria ohia herenegun ingresatu zuten, astebetean bigarren aldiz, gibelarekin zituen arazoengatik. Williams doktorearen aholan, Bestek «hobera egin du». Best Belfasten jaio zen, eta 1963 eta 1973 artean Manchester United taldeko izarra izan zen. 1968an Europako futbolari onena aukeratu zuten. Alkoholarekin arazo franko izan ditu, eta edateari utziko diola agindu du.

Hristo Stoichkov, EEBBetako Ligara

Hristo Stoichkov bulgariarra, iazko ekainean futbolari utziko zuela esan arren, EEBBetako Chicago Fire taldean ariko da, martxoaren 17tik aurrera, hilean 250.000 dolar irabazita.

Anelka baztertu eta zigortu egin du Real Madrilek

Nicolas Anelkak uko egin zion atzo Real Madrilekin entrenatzeari, eta klubak taldetik baztertu du, «epetrik gabe». Zuzendaritzak, gainera, entrenatzailearen txostenean oinarrituta, expedientea zabaldu dio Anelkari, «falta oso larriagatik».

Ohore handiko agurra Matthausi

Bi orkestrak eta majorette talde batek agurtu zuten atzo Lothar Matthaus, Bayerneko jokalaria ohia, Municheko aireportuan (Alemania). Matthaus New Yorkeko Metro Stars taldean ariko da orain.

Eibarko Bixente, lesionatuta ere, Gijonen ariko da

Eibarko kapitain Bixente Sportingen aurrean ariko da igandean Gijonen, oin-gaineko lesioaz ia osatuta.